

garabide
bidagara

memoria2015

Aurkibidea

Hamarkada bat hizkuntza lankidetzan	3
Sarrera.....	5
Tokian tokiko proiektuak.....	6
Ekuador	6
Kolonbia.....	8
Kurdistan.....	9
Mexiko.....	10
Txile.....	12
Bolivia.....	13
Hitzarmenak.....	14
Zabalkundea.....	15
Ondorioak.....	19
Erakunde laguntzaileak.....	20
Esker ona.....	21
Balantze ekonomikoa.....	22

HAMARKADA BAT HIZKUNTZA LANKIDETZAN

2005



Azterketa lanak eta oinarrizko teorizazioa

- Euskaingintzaren esperientziaren sistematizazioa
- Euskaingintzaren ekimenaren sintesia
- Identitatearen garapena eta herrien berezko garapena
- Hizkuntzen ekologia

2006

Kooperatiba ildo berri bat: hizkuntza lankidetzak

- Garapen bidean dauden herrietako hizkuntza komunitate minorizatuekin lankidetzak bideratzea, euskara eta euskal kulturaren garapen esperientzien trukean oinarrituta
- Euskararen eta euskal kulturaren garapenean lanean ari diren erakundeek Hegoaldeko hizkuntza komunitate minorizatuekiko lankidetzarako beren esperientzia eskaini dezaten sustatzea.

2007



Hizkuntza eta herrien arteko I. Truke Programa

2008

Lehen harremanak Boliviako aimara eta quechua komunitateekin



Truke Programaren II. edizioa

2009

Lehen harremanak Guatemalako mayekin eta Txileko maputxeekin



Truke Programaren III. edizioa



NBEak antolatutako herri indigenen foroan hartu zuen parte Garabidek



Euskararen berreskurapen esperientzia batzen duen liburu sortaren lehen alearen argitalpena



Lehen zubiak eta esperientzia elkar-trukeak hegoaldeko eta Euskal Herriko erakundeen artean Truke Programe-tatik haratago: UNIBOL Boliviako lehen unibertsitate indigenari aholkularitza

2010



Truke Programaren IV.edizioa

- Guatemalako kaqchiquel eskualdeko eskoletako irakasleei formazioa
- Ekuadorreko mapa soziolinguistikoa eratzeko aholkularitza
- UNIBOLi formazioa eta aholkularitza
- Maputxeen plataforma linguistikorako aholkularitza




2011

Hizkuntza biziberritzeko estrategiak I. aditu titulua



- Kolonbiako Nasa Yuwe komunitatera lehen hurbilpenak



2012



Truke Programaren V.edizioa

- Lehen formazio bidaiak Mexiko (Nahuatl komunitatera) eta Kolonbiara (Nasa komunitatera)

2013

Hizkuntza biziberritzeko estrategiak 2. aditu titulua



DAJERRI JSKALDUNEN ANKOMUNITATEA

Hizkuntza biziberritzeko estrategia berrituzko komunitateekin lankidetzan aurrera sinatu dute Garabidek eta UEMak.

zkuntza gutxiak dituzten komunitateekin lankidetzatatzeko hitzarmena sinatu dute Garabidek eta UEMak.

2013ko azaroak 22 | Zehatzak | Berrikuntza eta Inbentarioa

- Formazio saiok Mexiko, Kolonbia, Ekuador eta Txilen
- Lehen harremanak kurdistanekin
- 11 udaltxerekin Garabideren jarduna babesteko elkarlan hitzarmenak

HEZKUNTZA

Sareko Hizkuntza / Gurea / Hizkuntza

Garabidek kooperatiboak eta lehen hurbilpenak erabiltzen ditu. Lehen hurbilpenak erabiltzen dituzte. Berrikuntza eta Inbentarioa erabiltzen dituzte. Garabidek kooperatiboak erabiltzen dituzte. Ezin izan zuten kooperatiboak erabiltzen dituzte. UEMak erabiltzen dituzte. UEMak erabiltzen dituzte. UEMak erabiltzen dituzte.



2014



"Beltzean mintzo" dokumentalaren aurre-estreinaldia Biarritzen

SARRERA

2015ekoak

2015ekoa ibilbide oparo baina maldatsua izan da.

Baliabide urriekin aurreko urteko bidaideei (Ekuador, Kolonbia, Mexiko, Txile eta Kurdistan) jarraipena eman diegu proiektu berriekin eta Bolibian ere egin ahal izan dugu esku-hartze birtual bat. Zabalkunde intentsua egin dugu "Beltzen Mintzo: Amerikako Jatorrizko Hizkuntzen arnasaz" dokumentalaren proiektioaz ballatuta 32 herritan solasaldiak gidatuz, eta enpresa eta ikastetxeetara ere joan gara Garabideren jarduna ezagutaraztera. Erakundearen egitura indartu eta egonkortzeko ahalegin berezia egin dugu Plan Estrategiko berria sortzeko gogoeta saioa eginez, hizkuntza lankidetzaren bilakaera eta erronkak aztertu dira hamarkada honen bukaerarako lehentasunak eta aukerak zehazteko bidean eta finantzazio iturri garrantzitsuena diren proiektuen erredakzioa indartzeko ere bi formazio jaso ditu lantaldeak.

Hori guztia udaletxeen eta enpresen babesari esker egin ahal izan dugu 2015ean eta gertuko erakundeekin harreman iraunkor eta hurbilekoak izatearen garrantzia berretsi digu. Horretarako ezinbestekoa da elkarlana eta alde bikatasuna; erakundeei "eskatu" bakarrik ez, eskaini ere egitea eta herritarren edo erakundeetako kideen artean ere lana bistaratzeko proiektuan benetako ekarpen bat egiten ari direla sentitzeko. Beltzean Mintzo dokumentala tresna ezin hobea izan da horretarako hitzarmendun herrietako eta beste hainbat udalerritako biztanleengana ere iristea ahalbidetu digulako. Solasaldi eta hausnarketa mamitsuak bildu ditugu herriz herri, eta ondorio bat gutxienez gailentzen da: interesa dago, alde batetik, gure herriko hizkuntza biziberritze esperientzia hobeto ezagutu eta jarduna intentsifikatzeko; eta, bestetik, beste hizkuntza gutxitu batzuek dituzten prozesuak ezagutzeko.

Maldatsu izenondoa erabili dugu 2015a deskribatzeko urte bukaera arte ez zaigulako finantzazioarekin zerikusia izan duen ebazpen garrantzitsu bat jakinarazi eta zailtasunak izan ditugulako aurtengo bidea egiteko. Dena dela, bisai ederra aurkitu dugu maldaren amaieran Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak onartu egin digulako "Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Ikastaroa"-ren III.edizioa antolatzeako proiektua. Horrek arnasa eman digu datozen urteetan, hizkuntza gutxituak dituzten hegoaldeko herri indigenekin euskararen berreskurapen esperientzia partekatuz, munduko hizkuntzen galera prozesuaren aurka egin eta identitate indigenarekin loturiko marginazioak eragindako pobrezia estrukturala erazten jarraitzeko eta ilusio berrituarekin agurtu dugu urtea ondorengoari gogor ekiteko. Proiektu onarpen hori, gainera, sinbolikoki ere lorpen oso garrantzitsua izan da bi arrazoiengatik: alde batetik, Garabide delako Jaurlaritzan lankidetzako proiektuak euskara hutsean aurkezten dituen gobernuz kanpoko erakunde bakarra; eta, bestetik, finantzatzaile publikoetatik diru-laguntzak lortzeko irizpideak geroz eta zorrotzagoak eta GGKEen arteko lehia ere geroz eta estuagoa den honetan proiektua onartua izatea lortu dugulako.

TOKIAN TOKIKO PROIEKTUAK

Bidaide programa

2015ean hizkuntza lankidetzako proiektuak garatu ditugu Ekuador, Kolonbia, Txile, Mexiko eta Bolivian eta delegazio kurdu baten eta ekintzaile mexikar baten bisita ere izan dugu Euskal Herrian. Zuzenean Garabideren bitartekaritzarekin kasu batzuetan eta euskal erakundeen eta erakunde indigenen arteko zubi lana eginez beste batzuetan, era presentzial eta birtualean jardun dugu herri horietako hiztun komunitate minorizatuekin eta guk ere haietako batzuen esperientziak jaso ahal izan ditugu geurean.

EKUADOR

2015ean bi aldiz izan gara Ekuadorren: urtarrilean eta ekainean. Bietan, Jon Sarasua Garabideko kidea izan da bertaratu dena.

Lehenengo bidaiaren asmo nagusia Ekuadorreko lehen hizkuntza legearen zirriborroa idazten ari den taldearekin kolaboratzea izan da. Kontinente mailan zedarria izan daiteke lege hori lehenbizikoz, intentzio deklarazioa gaindituta, ardurak, epeak eta bitartekoak zehazten baitira hizkuntza biziberritze biderako. Garabidek antolatutako Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Tituluaren lehen edizioan parte hartutako Sacha Rosero da ekimen aitzindari horren bultzatzailea eta Sarasua aholkulari lanetan dabil. Baina, aldi berean, bidaiaren helburua ere izan da Garabideren Ekuadorreko erakunde lagunetako hamar ordezkariarekin bilerak egin eta bakoitzaren egoera eta beharren diagnosi bat egitea biziberritzearen arlo desberdinetan -hezkuntza, hedabideak, itzulpenak, korpua, kontzientziazioa- erakunde bakoitza burutzen ari den ekintzen mapa bat osatuz.



Sacha Rosero, Ekuadorreko parlamentuko ordezkaria eta Jon Sarasua, hurrenez hurren.

Izan ere, Ekuadorren erakunde desberdinak ari dira biziberritzearen arlo desberdinetan lanean, baina ez dute mugimendu egituratu bat osatzen; erakundeen arteko kohesio falta handia dago. Guztiek norabide berdinean begiratu eta indarrak batzeko beharra aspaldi detektatuta, Kitxueraren espazio komun bat sortzeko eragile zentral izateko eskatu izan diote Ekuadorreko erakundeek Garabideri. Eskaera horri erantzunez, erakundeetako 10 ordezkariarekin banakako bilerak egin ditugu hegoaldeko bi koordinatzailearen laguntzaz (Imbaya Cachiguango kitxcua eta Viviana Gonzalez nasa) urtarrilean eta ekainean.



Ekuadorreko erakunde lagunetako ordezkariak, Imbaya Cachiguango (lehen ezkerretik), Viviana Gonzalez (laugarrena ezkerretik) eta Jon Sarasua.

Burututako hiru gogoeta saioetatik (bat urtarrilean eta bi ekainean) hurrengo urteetarako bi lan lerro nagusi atera dira:

1. Kitxuerazko terminologien datu-basea eratzea.
2. Kitxueraren korpusa eratzea.

Tinkunakuy erakundea eta bertako ordezkari Tupac Amaru izendatu dira kitxuerazko terminologien datu-basea eratzeko arduradun, UZEI erakundearen aholkularitza eta Garabideren jarraipenarekin.

KOLONBIA

Kolonbian 2015ean gauzatu dugun esku-hartzeak hiru urrats izan ditu eta egitasmoa Kolonbiako Caucako Çxhab Wala Kiwe – ACIN (Asociación Cabildos Indígenas del Norte) eta Nasa Üus (Asociación Cabildos de Reasentamientos) elkarrean eta Garabide Elkartea eta UPV-EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedraren artean burutu da. Hiru urrats horiek honakoak izan dira:


1) Uztailaren 27tik abuztuaren 4ra bitartean, Rosa Elizburu eta Rosi Oleaga (Durangoko Ibaizabal ikastolako irakasle eta adituak) murgilketa ereduko irakasleen trebakuntza didaktikoaz arduratu dira Wasakkwëwe'sx haur-eskola sarean.

2) Abuztuaren 11tik 18ra bitartean, Belen Uranga (Munduko hizkuntza ondarearen UNESCO Katedra eta Soziolinguistika Klusterra) Mikel Mendizabal (Katedra eta Garabide) adituek hizkuntzaren planifikazioaz edo plan estrategikoa diseinatzeaz aholkularitza eskaini dute, nasa yuwea biziberritzea helburu duen Hilo de Nasa Yuwe taldea lantzen ari den "Plan de Revitalización del Nasa Yuwe, Proyecto Nasa" izena duen plan estrategikoari bultzada emanez.

3) Irailaren 1etik 30era bitartean Ane Ortega (Bilboko Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolako irakaslea) eta Arkaitz Zarraga (Basauriko Euskaltegiko irakaslea) adituak nagusien alfabetatze eta jatorrizko hizkuntzaren baitaratze didaktikaz eta diseinuaz aritu dira Cauca eskualdean. Helduei Nasa Yuwe hizkuntza irakasten edo alfabetatzen diharduten Hilo de Nasa Yuwe Azpi-saileko Atpu'çxsawe'sx-eko ekintzaileei hainbat tailer eman dizkiete helduei irakasteko curriculuma garatzearen eta metodologia komunikatiboren inguruan.

Hiru ekimenak Kolonbiako Cauca departamentuko Toribio eskualdean gertatu dira, bertako Çxhab Wala Kiwe – ACIN erakunde indigenaren Hezkuntza Saileko Hilo de Nasa Yuwe Azpi-saillarekin batera eta, hein handi batean Durangoko udalak finantzatu ditu Garaideren bitartekaritzarekin egin diren esku-hartzeok.

Aurrerapauso garrantzitsuak egiten ari dira Kolonbian, adibidez, murgiltze eredurako materialgintzan. Jarraian ikusten dugun material didaktikoa -Hilo de Nasa Yuwe delakoaren arduradunek eta sustatzaile taldeak sorturikoa- baliteke Nasa Yuwe hutsez editatutako lehenetakoak izatea, behintzat eskola-arloan.



Nasa Yuwerazko eskola materiala.

KURDISTAN

Abenduaren 5etik 11ra bitartean bost hizkuntza aktibista kurdu (horietako bat Diyarbakirreko alkatearen aholkularia) izan ditugu Euskal Herrian, euskararen berreskurapen esperientzia ezagutu, eta hizkuntza komunitateen arteko esperientzia trukean sakontzeko bidaidetzan. Egonaldia 2014an Jon Sarasuak Siriako errefuxiatu kurduen Turkiako kanpaleku batera eginiko bidaiaren eta aurrez hizkuntza kurduarekin Garabide elkarteak duen esperientzia truke iraunkorraren jarraipena izan da. Kurdistango egoera politiko korapilatsua kontuan hartuta, ahalegina handia izan da ordezkaritza osatu eta kulturaren biziberritzea lehentasunen artean paratzeko.

Lau formazio saio jaso dituzte (hiru Aretxabaletako Bagara elkartearen egoitzan eta laugarrena Lasarte-Oriako udaltxean bertan) Jon Sarasua (idazlea, HUHEZIko irakaslea...), Andoni Barreña (Soziolinguista, Salamancako unibertsitateko euskara irakaslea), Urtzi Urrutikoetxea (eitbko nazioarteko albisteen arduraduna eta Kurdistango egoeran aditua) eta Iñaki Arrutiren (Lasarte-Oriako udaleko euskara zerbitzuko burua) eskutik. Euskararen berreskurapen gakoak, hezkuntza eta hizkuntzaren biziberritzea, hizkuntza arlo desberdinetan (enpresa, hedabideak...) nola berreskuratu eta erakunde publiko lokalen plangintzak landu dituzte saio horietan. Baina Garabideren helburua "irakastea" bakarrik ez ikastea ere badenez, geuk ere Kurduen egoeraren eta abian dituzten hizkuntza biziberritze esperientzien inguruko formazioa jaso genuen abenduaren 6an, igandean, Şerif-en eskutik eta ostiralean esperientziaren inguruko ondorio bateratuak ateratzeko saio bat egin genuen guztion artean. Pozgarria izan da, adibidez, 14 freedom school (kurdueraz irakasten duten eskolak) martxan dituztela ezagutzea 250 ikasleekin. Euskal Herriko lehen ikastolak bezala, legez kanpo ari dira oraindik.



Yusuf, Şeyhmus, Şerif, Ali eta Osman Arizmendi Ikastolan.

Goiena Komunikazio Taldean, Durangoko Azokan, Eitb-n, Lasarte-Oriako Udalean, Lasarte-Oriako euskaltegian, Lasarte-Oriako Ttakun euskara elkartearen, Emun taldean, Gipuzkoako Foru Aldundian, Berrian, Soziolinguistika Klusterrean, Oriako Karkara herri aldizkarian, Arizmendi Ikastolan eta Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatean hartu gaituzte asteen. Erakunde guztiek beraien esperientzia kurduekin era pertsonalizatuan elkartrukatzeko benetako prestutasuna erakutsi dute eta esperientziak lehen eskutik ezagutu ahal izan dituzte.

MEXIKO

Mexikon, 2015ean, 2014an burututako bidaidetzari jarraipena eman zaio Puebla Estatuko Cuetzalan herriko TOSEPAN erakundearekin elkarlanean eta, batez ere, Andoaingo Udaleko finantzazioarekin.

2014ko proiektuaren jarraipena eta egokitzapena aurrera eramateko, 2015eko udaberrian 4 bideokonferentzia egin ditugu hizkuntza, heziketa eta teknologia normalizazio jardueri buruz. Garabide Elkarteko presidente Andoni Barreñak eta Ander Bolibarrek gidatu dituzte bideokonferentziak eta IXA taldeko Xabier Alegriak ere hartu du parte, hiztegiaren egokitzapenak aztertzen. Bideokonferentzietan hiztegiaren proiektu zehatzaz gain, Bidaide proiektuaren jarraipen integrala gauzatu da.



TOSEPAN erakundeko Aldegundo Gonzalez (ezkerrean) IXA taldeko ordezkariak (eskuinean) eta Garabideko kideak (behean).

Horretaz gain, online formazio saiokak ere bideratu dira TOSEPAN elkartearen honako gaiet buruz:

- Hizkuntza ekologia eta soziolinguistika: jatorrizko hizkuntzaren berreskurapenerako ikuspegi estrategikoa eta autodiagnostikoaren garapenerako teknika soziolinguistikoak.
- Haur hezkuntzaren eta lehen hezkuntzaren planifikazioa, murgilketaren bidetik.

TOSEPAN kooperatibaren hezkuntza alorrean urteak dira murgiltze ereduko hezkuntza integrala eskaintzen dela. Bertako hezkuntza publikoarekin alderatuta, berritzailea da formazio guztia jatorrizko hizkuntzan eskaintzen delako, eta metodologia inklusibo eta aurrerakoia txertatzen ari direlako.

Bertatik Garabideri egindako eskakizuna, materialen sorkuntzarako laguntza izan da. Formaziorako derrigorrezkoak dituzte beraien hizkuntzan eta modu parekide, ekologista eta aurrerakoian oinarritzen diren materialak. Horren sorkuntzan ibili dira 2015ean, eta Garabideren estrategia izan da ikastoletan sortu behar izan ziren materialen arduradunekin harremanetan jartzea erakunde.

Azkenik, Urrian zehar eta hiru astez, Maria Luisa Albores TOSEPANeko kide eta aholkularia Arrasaten izan da formazio kooperatiboa jasotzera etorritako beste zazpikote batekin batera. Ikastaro horren bueltan hainbat hezkuntza zentro bisitatu ditu, eta formazioa jaso du euskararen berreskurapen esperientzian hezkuntzak (ikastolen elkarteak zein sistema publikoak) izandako paperaz. Beltzean Mintzo dokumentalaren bidez hezkuntza lankidetzari buruzko saio bat ere eskaini ziztaion talde osoari.



Maria Luisa bera taldeari hizketan.

TXILE

2015eko abenduaren 18tik 28ra bitartean AEK-ko glotodidaktika aditua eta irakasleen formazioan esperientziaduna den Joseba Irazabal Barrenetxea Padre las Casas-en (Txile) izan da mapudunguna irakasteko barnetegi batean irakasleei helduen irakaskuntzari buruzko formazioa ematen. 20 irakasle eta 30 ikasle izan dira bertan eta mapudungun irakasleak formatzeaz gain, hizkuntzaren egoerari eta berau biziberritzeko abian diren ekimenen inguruko informazioa jaso ahal izan du Garabiderentzat, 2014an Txema Abarrategi Garabideko kideak eremu berera eginiko bidaiaren osagarri.

Wallmapura eginiko bidaiarako helburu nagusiak bi izan dira:

- 1) Mapudungun hizkuntzaren egoerari eta berpizteko egiten ari diren lanei buruzko informazioa biltzea Garabiderentzat, erakundeak eskain dezakeen elkarlana hobeto planifikatu ahal izateko.
- 2) AEK-ren esperientziatik abiatuta, helduei mapudungun-a irakatsi nahi dieten irakasleen formazioan ahal den neurriko ekarpena egitea.

Aurreko guztia, Padre Las Casas komunitatean antolatutako barnetegian egin nahi izan dugu. Barnetegi Mapudungunaren Akademiak antolatu du FEMA (Federación Mapuche de Estudiantes) ikasle maputxeen federazioaren laguntzarekin, eta bertan 30 ikaslek eta 20 irakasle-laguntzailek hartu dute parte.



Joseba bera barnetegian eskolak ematen.



Ikaslea bandera maputxearekin.

BOLIVIA

Otsailaren 26an, Boliviako Unibertsitate Indigenako fakultate aimarak ama hizkuntzaren nazioarteko egunaren baitan antolatutako jardunaldi batzuetan hartu zuen parte Jon Sarasuak birtualki hitzaldi bat eskainiz. Hizkuntza gutxituen erronka komunez eta euskararen esperientziaren gakoez aritu zen bertan.



HITZARMENAK

Udal laguntzaile sarea

2014an 11 udalekin (Andoain, Azkoitia, Berriatua, Durango, Oiartzun, Ondarroa, Orio, Otxandio, Tolosa, Usurbil eta Zarautzekin) sinatu genuen hitzarmena. 2015ean mantendu egin dira hitzarmenok (Ondarroa izan ezik) eta Aramaio ere batu da gure udal sarera. 2016an gorpuztuko diren hitzarmenak ere landu ditugu Bermeo eta Baztanekin eta espero dugu bi udal horiekin elkarlana burutu ahal izatea 2016an. Udaletxeen babesa, Fagor eta Irizar kooperatiben ekarpenekin batera, izan da aurtengoan hauspoa eman diguna eta beste behin baieztatu digu erakunde horiekin harreman iraunkorak izateak duen garrantzia egonkortasunari (batez ere egonkortasun finantzarioari) eta gure proiektuek Euskal Herrian ere sona izateari begira. Azken batez, hitzarmenaren bidez, udalen ekarpena jasotzeaz gain, herrian sentsibilizazio eta zabalkunde ekintzak burutzerako konprometitzen gara eta ahal duguna ematea ahal duguna jasotzea bezain garrantzitsua dela deritzogu. Udal laguntzaileen sarea gorpuztuz doa eta hizkuntza lankidetzak badu Euskal Herrian gero eta udal gehiagoren sostengua.



Aramaioko alkatea eta Andoni Barreña Garabideko lehendakaria hitzarmena sinatzen.

ZABALKUNDEA

Beltzean Mintzo bira eta hedabideak

2015a zabalkunde eta oihartzun mediatiko handiko urtea izan da inondik ere.

"Beltzean Mintzo: Amerikako jatorrizko hizkuntzen arnasaz" dokumentalaren aurkezpen ofiziala egin dugu otsailean (2014an Biarritzen aurre estreinatu ondoren) eta horren ostean 32 herritan izan gara udaberriko eta udazkeneko biratan:

- | | | | |
|----------------|-------------|------------|---------------|
| - Andoain | - Zarautz | - Bergara | - Bilbo |
| - Eskoriatza | - Berriatua | - Arrasate | - Zornotza |
| - Azkoitia | - Donostia | - Aldude | - Errenteria |
| - Otxandio | - Gasteiz | - Donostia | - Ikaztegieta |
| - Oiartzun | - Tolosa | - Basauri | - Sopela |
| - Orio | - Durango | - Hazparne | - Zaldondo |
| - Usurbil | - Tafalla | - Hernani | - Iruñea |
| - Aretxabaleta | - Aramaio | - Oñati | - Elizondo |



Aipatzekoa da udazkeneko bira Topagunearekin batera eta, beraz, herrietako euskara elkarteekin elkarlanean, antolatu dugula eragile lokalen inplikazioa bultzatuz.



Dokumentalaren fotograma bat Andoaingo aurkezpenean.



Donostiako emanaldia.



Eskoriatzako emanaldia.

Amerikako jatorrizko hizkuntzak aztergai

'Beltzean mintzo' dokumentala eskainiko dute



Dokumentalaren parte hartu duten protagonista bat.

Durangoko emanaldia iragartzen Anboto aldiizkarian.

DURANGO (M. O.). Kitxua, masa, nahuatl, kaqchiqué, aimara, maputxe eta maya yukaték hizkuntza komunitateetako hemezortzi amerikar Euskal Herrian egon ziren duela urte bi, Hizkuntzak Hiriberritzeko Estrategiak izeneko masterra egiten. Durangakdera ere etorri ziren, euren esperientzien berri emateko eta euskararen egoera ezagutzeko asmoz. Esaterako, Zabalarra ikastetxean, Kurutziaga ikastolan eta Durangoko Udalean egon ziren. Bada, bisitari haïtako hamalagar dokumental bat landu du Garabide elkarteak eta eguaztenean eskainiko du Plateroan, Irudetatik aurrera. *Beltzean mintzo* deitzen ikus-entzuzkoa, grabazio

planoetan erabiltako atzealdeko tala beltzari erreferentzia eginez. 45 minutuko iraupena dauka, eta trailerra *ara-garabide* es webgunean ikusi ahal da. Amerikarrek, euren esperientzia kontatzeaz aparte, euskaldunok zelan ikusten gaituzten azaltzen dute dokumentalean. Andoni Barreña Garabideko kideak adierazi du Euskal Herrian kultura eta nortasuna berrindartze-egindako lana "oso estimatu" dutela dokumentaleko protagonistek. "Gu orain 50 urte lez dauzke ezrak: bazterruta".

FESTIBALA

Ordulegia / Horaires | Filma / Les Films | Dokumental | Animazio / Gaurak | Hurrengoak | Riklap

Zinegin Festibala | Zinegin Festibala - Messager novembre 2015 - Ordulegia / Horaires

Strategiak / Horaires

Filmak / Les Films	Precioa / Prix	Irudi / Durée	11/19	11/20	11/21	11/22
80 eguzkoa	3,5	105'	21:00			
Bisaiak: jantziaren aurpegiak	3,5	70'		18:00		
Txetxe ala hil	0	36'		19:30		
Euskal Herriaren ABD-ak	3,5	126'		21:00		
Aspa Etxebeste!	0	57'			10:00	
Beltzean mintzo	3,5	49'			14:00	
Herreroak: Haritzaren Bibotas	0	80'			16:00	

Accueil du blog | Recommander ce blog | Créer un blog avec CanaBlog

Laguntza publikoak / Aides publiques | Aizuntziako Eskualde Kontseilua | EHU | EKE / ICS | Hagoaneko lanaldia

Beltzean Mintzo Zinegin festibaleko programazioan

garabide

Beltzean mintzo
Amerikako jatorrizko hizkuntzen arnasaz

11/19 11/20 11/21 11/22

18:00 19:30 21:00 10:00 14:00 16:00

irruñeko emanaldia iragartzen zuen kartela.

Dokumentalaren bira horrek hedabideen arreta piztu du eta prentsa idatzian, irradian eta baita telebista saioetan ere hitz egin da Beltzean Mintzoz eta Garabideren lanaz. Erreportaje eta albisteak argitaratu dira Berrira, Gara edo Argia hedabide nazionaletan eta baita Anboto, Aiurri, Karkara edo Puntua bezalako tokiko aldizkarietan ere; elkarrizketak egin dizkigute Euskadi Irratian, Bizkaia Irratian, Radio Euskadi edo Xorroxin Irratian eta Info7ko Gureaz Blai saioan ere kolaboratu dugu hilean behin audio pilula bat prestatuz; eta Tribuaren Berbak eta Azpimarra saioetan ere izan gara hizkuntza lankidetzaren inguruan solasean.



Beltzean Mintzo': Ameriketako jatorrizko hizkuntzen arnasaz

Dokumentu ezazu: Gurea, eta Beltzean Mintzoz, auzoak eratu dira. Diarzioa hizkuntza ezagutzeko mugimendua, eta euskararen ikusketan eragin berezia duela. Hizkuntza ezagutzeko mugimendua, eta euskararen ikusketan eragin berezia duela. Hizkuntza ezagutzeko mugimendua, eta euskararen ikusketan eragin berezia duela.



Aurkezpenen udazkeneko bira

ari dira, eta, horiek batera, herrialde hutsen eragin berezia duela. Diarzioa hizkuntza ezagutzeko mugimendua, eta euskararen ikusketan eragin berezia duela. Hizkuntza ezagutzeko mugimendua, eta euskararen ikusketan eragin berezia duela.

naiz: INFO IRITZIA NAIZ+ AGENDA HARRPIDETZA DEN

NAIZOARTEA | KULTURA | JENDARTEA | GURE HERRIA

SAIOAK

TXEMA ABARRATEGI

"HIZKUNTZA TXIKIAK MENDEETAN IRADU, MUNDUAREI HANDITASUNARI NEURRIA HARTZEKO BALI IZAN DU"



Udalerrietan bakarrik ez, enpresetan eta ikastetxetan ere egin dugu zabalpena eta, Beltzean Mintzoren proiektioaz baliatuz, hizkuntza galeraren eta euskararen berreskurapen esperientziaren inguruko gogoeta saioak bideratu ditugu Arrasateko Arizmendi Ikastolan eta Institutuan, Irizar Kooperatiban eta Fagor taldeko bi kooperatibatan eta euskara batzordean.



"Beltzean Mintzo" saioa Fagor Ederlan kooperatiban.



"Beltzean Mintzo" saioa Fagor Kooperatiba taldean.

ONDORIOAK

2015a erratze eta hedatze urtea izan da Garabiderentzat eta, beraz, baita ere kooperazio linguistikoko ekimenentzat. Horren adierazgarri dira hizkuntza-lankidetzaren ardatz hartuta herriz herri gauzatu diren emanaldiak, gehientsuenak Beltzean Mintzo dokumentalaren bidezko saiokak. Askotarikoak eta zinez aberasgarriak suertatu dira han eta hemen piztutako solasaldiak eta horietan bildutako ekarpenak.

Kultur dibertsitatearen eta hizkuntza aniztasunaren balioen inguruko kontzientziazioa eta sentsibilizazioa landu beharretik harago, Garabiderentzat funtsezkoa da jendartearekiko interakzioa eta gure herrietako eragileekiko elkarlana. Euskalgintzaren aldarteak, haren berrikuntzarako grina eta ahalmenak, elikatu behar ditu hein batean gure diskurtsoa, gure lankidetzaren eredu eta baita gure proiektuen norabidea ere. Horregatik, ildo horretan egindako lanagatik, 2015ekoa Garabideren gogo-oinarriak sendotzeko eta gizarteratzeko sasoia izan dela baieztatu dezakegu.

Beste behin, euskalgintzako agenteekiko elkarlanaren eta gure kulturaren biziberritze-esperientzia beste hizkuntza komunitate batzuekin partekatzearen osasuna agerian geratu dira tokian-tokian zein Euskal Herrian bertan gauzatutako proiektuetan. Abenduko delegazio kurduaren bisitak ongi baino hobeto frogatu du euskal hedabide, administrazio publiko, euskara elkarte, hezkuntzako eta beste alorretako eragileak nola mobilizatu diren bakoitzaren lanaren eta ibilbidearen berri eskaintzeko. Eta osatutako kontakizunak ongi lerrokatutako ahaleginak erakutsi dizkigu beste behin, herri batek bere jatorrizko kulturaren bizitzeko duen grinaren adierazgarri.

Era bertsuan gauzatu dira maputxeekiko harremanak Wallmapun eta nasekikoak Caucan; AEK-ko eta Ibaizabal ikastolako adituek hurrenez hurren hurbildu diete gure normalizazio-ezagutza hizkuntza komunitate horiei eta esperientzia-truke oparoak eraiki dira Txileko eta Kolonbiako erakunde indigenekin eta hizkuntza-aktibistekin.

Bestalde, Garabideren ikuspegi estrategikoan markatu diren lehentasunezko bi esku-hartzeko poloak, -polo andetarra eta ertamerikarra- finkatu eta indartu egin direla esan badezakegu ere, beste herri batzuekiko hedapenari ere heldu zaio. Eta, horrenbestez, hizkuntzen biziberritze-sarea gorpuzteko eta zabaltzeko urtea ere izan da 2015a. Baieztapen honen benetako balioa eta proiektzioa areagotu egiten da hamarkada bateko ikuspegitik.

Eta Garabide elkartearen lehen hamarkada honetako jardunbideak ezaugarri batzuk zuzartu baditu hizkuntza-lankidetzaren garapenean, heldutasuna dugu horien artean nabarmentzekoa. Kooperazio linguistikoko prozesuaren heldutasunaren erakusgarri baitira, esaterako, Garabideren aholkularitza Ekuadorreko Hizkuntzen Lege-proiektuan eta Jon Sarasuak urteotako lankidetzaren kultureko bizipenei buruz idatzitako Bost truke liburua.

Finean, aliatu berriak egiten ari gara. Lehengo lagunekin arnasa luzeko biziberritze zikloei eusten diegu eta bitartekoak lortu ditugu batzuen eta besteen premiei modurik eraginkorrenean erantzun ahal izateko. Edukiz betetzen ari da jatorrizko hizkuntzen arteko lankidetzaren 2016a urte bete-betea, intentsua, dator, Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Ikastaroaren hirugarren edizioarekin. Aukera paregabea gure ametsaren zabalkunderako, hizkuntza guztien parekotasuna aldarrikatzeko eta elkarrengandik, kultura batzuek beste batzuegandik, ikasteko.

Partekatzea da gure arrakastaren gakoa. Ezagutza partekatuta goaz hizkuntza aniztasunaren bidean aurrera. Horregatik da atsegin handiko plazera gure memoria zurekin partekatzea.

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



Berriatua
Elizateko
Udala



ESKER ONA

Topagunea

Emun

Berria

Ttakun euskara elkartea

Lasarte-Oriako udala

Karkara herri aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

HUHEZI fakultatea

Goiena

Arizmendi ikastola

Soziolinguistika Klusterra

BALANTZE EKONOMIKOA

Sarrerak

Erakunde publikoak.....	81.655,08€
Erakunde pribatuak	9000€
GUZTIRA	90.655,08€

Inbertsioak

Nasa Yuwe.....	12.000€
Kitxua.....	7.300€
Nahuatl.....	14.100€
Mapudungun.....	4.000€
Kurduera	6.400€
Zabalkundea.....	21.800€
Koordinazioa.....	22.570€
Administrazioa	8.830€
GUZTIRA	97.200€

